

650 kazetari ari dira euskaraz lanean

EHUko bost irakaslek Europako hamar hizkuntza komunitate aukeratu dituzte eta hizkuntza gutxituetan lan egiten duten 230 kazetari galdekatu. Datu bilketa orokorra ere egin dute. Horri esker dakigu 5.000tik gora direla egun osoz lanean ari diren kazetariak, gehienak Kataluniakoak eta urrirenak Korsikakoak.

ONINTZA IRURETA



Euskaldunen komunitateko kazetariak idatzizko hedabideetan egiten dute gehienbat lan (%49,2), telebistan berriz %31k. Katalan kazetariak idatzizkoan, telebistan zein irrartian paretsu dabilta eta galiziarren erdia baino gehiago berriz, irrartian ari da. Azkeneko argazkian gaelikoz idatzitako *Lá Nua* egunkaria ageri da. Arazo ekonomiko larriak dituela adierazi berri du agerkariak.

BATEZ BESTE 37 URTE ditu hizkuntza gutxituetan lanean ari den kazetariak. 24 urte inguru zituela hasi zen lanean eta hamar urtetik gorako esperientzia dauka. Hizkuntza gutxituetako hedabideetan nahikoa fideltasunez segitzen du lanean, gehiengo hizkuntzeta-ko komunikabideetarako pausoa eman gabe. Gehienek hedapen zabaleko hedabide publikoetan egiten dute lan, irrartian eta telebistan. Hamar hizkuntza komunitateetatik seitan, ia langile guztiak eremu publikoan egiten dute lan. Gerta liteke komunitate

horietan nolabaiteko inertzia eta inziatiba ahula egonkortzea.

Horixe EHUko irakasleek kazetariak egin duten profila. Iñaki Zabaleta, Nicolas Xamardo, Arantza Gutierrez, Santi Urrutia eta Ixaso Fernandezek bideratu dute “Europako Hizkuntza Gutxituetako Hedabideak eta Kazetaritza” izeneko ikerketa. 230 kazetari galdekatu dituzte, 69 idatzizko hedabideetakoak —egunkariak eta aldizkariak—, 90 irrartietakoak, 71 telebistetakoak eta bi on-line emititzen duen irrati batekoak. Honakoak dira azter-

tutako hamar hizkuntza komunitateak: euskalduna, katalana, galiziarra, korsikarra, bretoaia, frisiarra, irlandarra (gaelikoa), galestarra, eskoziarra (gaelikoa) eta samia. Bildutako datuen arabera esan daiteke hamar komunitateetan, egun osoz edo ia egun osoz, gutxi-asko 5.301 kazetari ari dela lanean —ikus taula eskuineko orrialdean—. Lehen postuan katalanak daude, kazetari kopuruaren %69,3rekin. Euskaldunak bigarren postuan dira, 650 kazetari ari dira lanean, hamar komunitateak hartuta %12,3 osatzen dutela. Azken postua Korsikak du, 28 kazetari ari dira lanean bertako hizkuntza gutxituan.

1.092 hedabide

Hamar hizkuntza gutxituetan aritzen diren hedabideen kopurua horixe da, 1.092. Horrek ez du esan nahi jarduna osorik hizkuntza horretan egiten dutenik. Ikerketarako ordea, 1.092 hedabide horietako langileak hartu beharrean

Soldatak eta lan giroa

Horri buruz ere galdetu diote EHUko irakasleek 230 kazetariei. Erantzunen artean bi talde nabarmen banatu dira, hedabide publikoetan lan egiten dutenen iritzia eta hedabide pribatuetan lan egiten dutenena. Komunikabide publikoetako kazetariak konforme dira soldatarekin, aldiz, lankideekin eta zuzendaritzarekin duten harremanaz ez dute iritzi onik. Hedabide pribatuetako kazetariak alderantzizko iritzia eman dute; soldatarekin ez dira pozik, baina bai lankideekin eta zuzendaritzarekin duten harremanarekin.

Kazetari kopurua komunitatearen arabera

Katalanak	3.677	%69,3
Euskaldunak	650	%12,3
Galiziarrek	460	%8,7
Irlandarrak	121	%2,3
Samiak	103	%1,9
Galestarrak	95	%1,8
Frisiarrak	81	%1,5
Bretoiak	51	%0,9
Eskoziarrak	35	%0,7
Korsikarrak	28	%0,5
Guztira	5.301	%10

Kazetari kopurua hedabide motaren arabera (%)

	Idatzizkoa	Irratia	Telebista
Samiak	11,6	80,6	7,8
Eskoziarrak	8,6	68,6	22,9
Irlandarrak	9,1	65,3	25,6
Korsikarrak	17,9	60,7	21,4
Galiziarrek	13,5	56,1	30,4
Frisiarrak	11,1	49,4	39,5
Bretoiak	11,8	49	39,2
Galestarrak	11,6	36,8	51,6
Katalanak	31,4	35,6	33
Euskaldunak	49,2	19,8	31
Guztira	30,1	37,7	32,2

kontuan, 1.025etakoak hartu dira. Euskararen eta katalanaren hazkundera dela medio, bi horien kasuan aukeratu diren hedabideek hizkuntza gutxitua %70 edo gehiago erabiltzen dute. Gainerako komunitateetatik edozein motatako hedabideak hartu dira, alegia, hizkuntza gutxitua edozein proportziotan erabiltzen dutenak. 1.025 hedabide horietatik 810 (%72) katalanak dira, 109 (%10) euskaldunak, galiziarrek 45 (%4) eta gainerako zazpi komunitateak 5 eta 20 hedabideen artean dabilta.

Kazetari gehienak irratia eta telebista publikoetan

Euskal Herriko Unibertsitateko bost irakasleek ateratako bost ondorio aipatuko ditugu.

Kopuruari dagokionez, katalanen nagusitasuna nabaria da, ia lau mila kazetari ari da lanean katalanez. Bigarren taldean aipatuko ditugu euskaldunak eta galiziarrek, bakoitzak 500 inguru kazetari ditu. Hirugarren taldean daude irlandarrak, samiak, galestarrak eta frisiarrak, bakoitza ehun bat kazetariarekin. Azken taldean daude nek –bretoiak, eskoziarrak eta korsikarrak– 50 kazetari baino gutxiago dituzte hizkuntza gutxituan lanean.

Hedabide motari dagokionez, irratien indarra da azpimarratzekoa.

Hamarretik zazpi komunitatetan kazetarien ia erdia ari da irratian lanean, agian, bitarteko merkeena eta sinpleena delako irratia. Katalanen egoera bestelakoa da, haien egoerak antz gehiago du gehiengoaren hizkuntzera; idatzian ari da kazetarien %31,4, irratian %35,6 eta telebistan %33. Telebista da nagusi berriz, galestarren komunitatean, kazetari erdiak baino gehiago ari dira medio horretan lanean. Ida-

Hamar komunitatetik bostetan ia kazetari guztiak hedabide publikoetan ari dira lanean. Katalanak, euskaldunak eta bretoiak ari dira lanean indar gehiagoz hedabide pribatuetan

tzizkoa oso gutxi garatu dute eta 2002an galesez idatzitako egunkaria sortzeko ekimena abian jarri bazen ere, oraindik proiektua gauzatzeko arazo larriak dituzte. Euskal komunitatearen ezaugarriak ere bereziak dira, paperari begira ari da lanean: kazetarien %49,2 idatzizkoan ari da lanean, telebistan %31 eta irratian %19,8.

Ez dago zalantzarik, hedabide gehienak publikoak dira, kazetarien %63,6k egiten du lan hedabide publikoetan. Hamar komunitateetatik bostetan ia kazetari guztiak hedabide publikoetan ari dira lanean, hau da, frisiarrak, eskoziarrak, irlandarrak, samiak eta galestarrak. Katalanak, euskaldunak eta bretoiak ari dira lanean indar gehiagoz hedabide pribatuetan; lehen bien kasuan kazetarien %38 eta hirugarrenaren kasuan %35,4. Hedabide publiko eta pribatuaren arteko banaketa hedabide motarekin batera doa, alegia, irratia eta telebista gehienak publikoak dira eta idatzizko komunikabideak pribatuak. Ikerlarien ustez, egoera honek bi esanahi izan ditzake: batek, erakunde publikoek arreta jartzen dute hizkuntza gutxituetako hedabideak laguntzeko, eta bestetik, ekimenerako indar ahula erakus dezake hedabide publikoen kopuru hain handiak.

Hedapenari dagokionez, kazetarien %71,6k komunitate politiko eta linguistiko osoan hedatzen diren komunikabideetan egiten du lan.

Generoari dagokionez, hizkuntza gutxituetako portzentajeak gehiengoaren hizkuntzetakoen antzekoak dira, kazetarien erdia pasatxo gizonetakoak dira eta emakumetakoak %48,1. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure
artean
euskaraz



BFA
DFB